

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### SEGURTASUN SAILA

## 1378

*AGINDUA, 2024ko martxoaren 5koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez irekitzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileetako langile lan-kontratudunentzat gordetako zenbait lanposturen enplegua finkatzeko salbuespenezko prozeduretan eskabideak aurkezteko epea, 2023ko ekainaren 16ko Aginduan xedatutakoa betetze aldera (2023ko ekainaren 30eko EHAA).*

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 24ko 53/2022 Ebazpenaren bidez xedatu zen 2022ko maiatzaren 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea 2022rako Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzeko erabakia, eta haren barruan, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileena.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2022ko abenduaren 5eko Aginduaren bidez (2022ko abenduaren 30eko EHAA, 249. zk.), Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileetako langile lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuen enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak eta espezifikoak onartu ziren.

Oinarri horiek Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 24ko Aginduaren bidez (2023ko martxoaren 10eko EHAA, 49. zk.) eta 2023ko uztailaren 7ko Aginduaren bidez (2023ko uztailaren 21eko EHAA, 139. zk.) zuzendu ziren.

Herrizaingo Saileko eta Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia erakunde autonomoaren langile lan-kontratudunen hitzarmen kolektiboaren 12.2 artikulua aplikatuta, barne-lehiaketako prozesu baterako deialdia egin zen 2022ko maiatzaren 18ko Ebazpenaren bidez (2022ko maiatzaren 31ko EHAA, 104. zk.), Segurtasun Saileko eta PLEAko lanpostuak behin betiko hornitzeko.

Enplegua finkatzeko prozesuen oinarri orokorrak onartzen dituen 2022ko abenduaren 5eko Aginduaren aurrekarietan adierazi zen bezala (2022ko abenduaren 30eko EHAA, 249. zk.), baita ondoren lanpostu batzuetarako eskabideen epea irekitzeari buruzko 2023ko ekainaren 16ko Aginduan adierazi bezala ere (2023ko ekainaren 30eko EHAA, 124. zk.) –biak Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak emanak–, lanpostuen kanpo-horniduraren aurretik barne-lehiaketako prozesua burutu behar da, eta horrek baldintzatu egiten du EPEaren xede diren lanpostuak zehaztea. Horren eraginez, deialdian sartu beharreko lanpostuak, nahitaez, prozesu horren «erresulten ondorioz» zehaztu behar dira.

Hasieran izapidetutako barne-lehiaketaren ondorioz, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2022ko abenduaren 5eko Aginduak (2022ko abenduaren 30eko EHAA, 249. zk.) argitaratu zuen lanpostuen zerrenda bat, plaza-kopurua, titulazio-taldea eta bakoitzari dagokion eranskina adierazita. Halaber, xedatu zuen EHAAn argitaratutako beste agindu batean zehaztuko zela eskabideak aurkezteko epea, eta agindu hori deialdia egin duen organoak emango zuela 2023ko lehen seihilekoan.

Hala ere, Segurtasun Saileko Giza Baliabideen zuzendariaren eta PLEAko zuzendariaren 2023ko otsailaren 28ko Ebazpenak –2319/2022 gatazka kolektiboko autoak direla-eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salaren epaia betearazteko emanda– erabaki zuen ondorioz gabe uztea 2022ko azaroaren 24an argitaratutako ebazpenean barne-lehiaketa izapidetzearen ondorioz egindako lanpostuen behin betiko esleipenak, eta lehiaketa-prozedura epai horrek berak deklaraturako arau-hausteak egin ziren unera atzeratzea.

Horren arabera, barne-lehiaketaren beste prozesu bat izapidetu da, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariaren eta Giza Baliabideen zuzendariaren 2024ko otsailaren 6ko Ebazpenaren bidez amaitu dena. Ebazpen horrek barne-lehiaketaren ondorioz izandako behin betiko esleipenen zerrenda argitaratu du.

Hala ere, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2023ko ekainaren 16ko Aginduak (2023ko ekainaren 30eko EHAA, 124. zk.) eskabideak aurkezteko epea irekitzeko fasea modu mailakatuan egitea erabaki zuen, tartean dauden eskubide guztiak uztartzeko. Aurrekarietan adierazten zen bezala, garai hartan barne-lehiaketak nahitaez mugatzen zuen deialdian sartu beharreko lanpostuen zehaztapan zehatza eta, batez ere, horietako bakoitzaren kuantifikazioa, eta, aldi berean, 2022ko abenduaren 30eko EHAAn argitaratutako lanpostuen aldaketa ere eragin zezakeen etorkizunean. Horren ondorioz, lehen fase batean, barne-lehiaketako parte-hartzaileen eskaerak aintzat harturik, prozesu horren emaitzek ukituko ez dituzten lanpostuetarako (I. eranskina) eskabideak aurkezteko epea ireki zen, baita lan-eskaintza hau osatuko duten behin betiko dotazioen kopurua zehazteke zuten lanpostuen (II. eranskina) eskabideak aurkezteko epea ere.

Halaber, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2023ko ekainaren 16ko Agindu horretan (2023ko ekainaren 30eko EHAA, 124. zk.) adierazi zen barne-lehiaketako prozesuaren ebazpena eman ondoren, langileen enplegua finkatzeko prozesuan konprometitutako gainerako lanpostuetarako eskabide-epearen irekiera erabakiko zela, EHAAn argitaratutako den beste agindu baten onarpenaren bidez, eta, gainera, agindu horretan zehaztutako zela lanpostuen eskaintza behin betiko osatuko duten dotazioen kopurua.

2024ko otsailaren 6an amaitutako barne-lehiaketaren prozesuak aldaketa eragin du, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2022ko abenduaren 5eko Aginduan (2022ko abenduaren 30eko EHAA, 249. zk.) argitaratutako lanpostuetan, eta eskaintza behin betiko osatu behar duten dotazioen kopurua zehaztu du.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak epaia eman du 2024ko otsailaren 20an, Bilboko Lan Arloko 10 zenbakiko Epaitegiak 781/2022 Lan Autoetan emandako epaia berresteko. Epai horretan adierazten da eskubidea dagoela Ekinbide burua-Ertzaintzaren Zerbitzua Hobetzeko Bulegoa izeneko 3217 kodea duen lanposturako deialdia merezimendu-lehiaketa bidez egiteko, ulertzen baita 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien aplikazio-eremuan sartzen dela, lege horren xedapenetan adierazitako epeetan; eta, hori guztia, berariaz baztertuta lanpostu hori Segurtasun Saileko lanpostuak behin betiko betetzeko barne-lehiaketako prozesutik (2022ko maiatzaren 18ko Ebazpena; 2022ko maiatzaren 31ko EHAA, 104. zk.). Epai hori betez gero, lanpostu hori Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 24ko 53/2022 Ebazpenaren bidez (EHAA, 103. zk., 2022ko maiatzaren 30ekoa) 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzarekin hasitako Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileetako langile lan-kontratudunen aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesu horien deialdian sartu da. Lanpostu horretan hastearren ondorioz, lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2022ko abenduaren 5eko Aginduan onartutako oinarri orokorrak aplikatutako zaizkio lanpostu horri (2022ko abenduaren 30eko EHAA, 249. zk.). Halaber, agindu honen bidez, salbuespenezko finkatze-prozesuan aipatutako lanpostuari aplikatu beharreko oinarri espezifikoak onartu eta argitaratzen dira.

Azaldutako guztiagatik, eta honako hauetan ezarritakoarekin bat etorritz: 2022rako lan-eskaintza publikoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 24ko 53/2022 Ebazpenaren bidez onartua (2022ko maiatzaren 30eko EHAA, 103. zk.); Herrizaingo Sailaren eta Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia Erakunde Autonomoaren langile lan-kontratudunen hitzarmenaren 10. eta 12. artikulua; Espainiako Konstituzioaren 118. artikulua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103. artikuluari eta hurrengoei eta horiekin bat datozei dagokienez; Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea; Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 61.7 artikulua; eta Segurtasun Sailaren egitura organikoari buruzko urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuak emandako eskumenez baliatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Agindu honen I. eranskin gisa argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileetako langile lan-kontratudunen enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen eskaintza behin betiko eta barne-lehiaketaren «erresulten» ondorioz edo epaia betearaztearen ondorioz osatzen duten lanpostuen zerrenda. Bertan honako hauek adieraziko dira: dotazio-kopurua, hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duten dotazio-kopurua eta sarbide orokorreko modalitatekoak direnen kopurua.

Bigarrena.– Epea irekitzea, agindu honen II. eranskinean adierazten diren Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileetako langile lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuetan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetan parte hartzeko eskabi-deak aurkezteko, 3217 lanposturako onartutako oinarri espezifikoak III. eranskinean argitaratuta.

Hirugarrena.– Eskabideak aurkezteko epea 2024ko martxoaren 20ko 00:00tik 2024ko apirilaren 19ko 24:00ra arte izango da.

Laugarrena.– Deialdi hauetan izena emateagatik tasen zenbateko eguneratua 19,78 eurokoa dela ezartzea, 2023ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legean xedatutakoarekin bat etorritz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren 38. eta 39. artikuluekin lotuta.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, betiere bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legea xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 5a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua,  
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

2024ko martxoaren 18a, astelehena

## I. ERANSKINA

Kodea	Lanpostua	Plazak, guztira	Guztira, hizkuntza- eskakizunarekin	Sarbide orokorraren modalitatea guztira
3112	Euskara Ataleko burua	1	1	1
3116	Zuzenbide Ataleko burua	1	1	1
3117	Agiri Poliziaren Ataleko burua	1	1	1
3123	Psikologia eta Soziologia Ataleko burua	1	1	1
3126	Zuzenbideko irakaslea	6	6	6
3127	Psikologiako irakaslea	6	6	6
3128	Soziologiako irakaslea	3	3	3
3131	Herri-babeseko irakaslea	2	2	2
3136	Ebaluazio Arloko burua	1	1	1
3138	Gidaritza eta Automozio Ataleko burua	1	1	1
3140	Defentsa-teknikak Ataleko burua	1	1	1
3145	Legelaria B	23	17	22
3152	Defentsa-tekniketako irakaslea	2	2	2
3180	Prestakuntza eta Hizkuntz Normalkuntzako teknikaria	1	1	1
3193	Legelaria A	6	2	6
3200	Kontularitza- eta Aurrekontu-arloko burua	1	1	1
3222	Eraikuntzak Mantentzeko Ataleko burua	1	0	1
3226	Eraikuntza Ataleko burua	1	0	1
3230	Mantenurako Teknika-bulegoaren Ataleko burua	1	1	1
3233	Proiektu Teknikoen Ataleko burua	1	1	1
3234	Lege-araubidearen Ataleko burua	1	1	1
3239	Kontularitza-teknikaria A	1	1	1
3246	Analisisgilea	8	4	8
3247	Analisisgile-programatzailea	2	1	2
3267	Medikua	1	0	1
3275	Analisien teknikaria	1	1	1
3277	Agiritegi eta Argitalpen teknikaria	1	1	1
3380	Estatistika teknikaria	2	2	2
3385	Proiektu Teknikoen burua	1	1	1
3392	Informazio/Telekomunikazio Teknologien Proiektuen Ataleko burua	1	0	1
3394	Garraio Sarearen Ataleko burua	1	1	1
3397	Komunikazioen Arloko burua	1	1	1
3398	Tetra Ataleko burua	1	1	1
3407	Itzultzailea	1	1	1
3504	Aholkularitzako proiektu-burua	2	0	2
3524	Sistema Zentralen teknikaria	1	1	1
3529	Lan Arriskua Prebenitzeko teknikari juridikoa	1	0	1
3530	Higiene Prebentzioaren goi-mailako teknikaria	1	1	1
3533	Segurtasun Prebentzioaren goi-mailako teknikaria	1	1	1
3536	Mantenimendu burua	1	0	1
3538	Agiri Polizialen irakaslea	1	1	1
3556	Larrialdi eta Babes Zibilerako teknikaria	1	0	1

2024ko martxoaren 18a, astelehena

Kodea	Lanpostua	Plazak, guztira	Guztira, hizkuntza- eskakizunarekin	Sarbide orokorraren modalitatea guztira
3575	Prebentzio, Prestakuntza, Ergonomia eta Psikosoziologia Aplikatuko goi-mailako teknikaria	1	1	1
3578	Fitxategien Segurtasuna eta Kalitate Kudeaketako Teknikaria	1	1	1
3580	Ikasleen Ebaluazio teknikaria	6	6	6
3586	Ertzaintzaren Egitura eta Antolaketako teknikaria	3	3	3
3587	Ikuskailtzeko teknikaria	1	1	1
3588	Lanbide-garapenerako Ataleko burua	1	1	1
3704	E-learning Edukien Kudeaketako teknikaria	1	0	1
3707	Ekonomia eta Kontratazioko teknikaria	2	1	2
3733	Emakumeen/Gizonen berdintasun Arloko teknikaria	1	1	1
3734	Langileak Kudeatzeko Arlo Juridikoko burua	1	1	1
3113	Euskarazko irakaslea	3	3	3
3150	Gidari-irakaslea	6	6	6
3430	Krokis irakaslea	1	1	1
3519	Administrazio-ataleko burua	1	0	1
3147	Ostalaritza burua	1	1	1
3231	Lantegien Atal Teknikoko burua	1	1	1
3254	Erizaintzako unibertsitate diplomaduna	2	2	2
3273	Segurtasun Instalazioen ikuskatzailea	1	1	1
3287	Eredutze-teknikaria	2	2	2
3401	Antolaketa Proiektuetako burua	2	2	2
3508	Eraikuntzetako teknikaria	1	1	1
3509	Ikuskatzaile nagusia	1	1	1
3512	Bulego Teknikoko teknikaria	1	1	1
3518	Materialen Kalitate-ataleko burua	1	0	1
3548	Lantegien Atal burua	1	1	1
3572	Mantentze Proiektuen teknikaria	1	1	1
3269	Programatzailea	4	3	4
3168	Sukaldari-burua	1	1	1
3244	Administraria B	16	15	16
3253	Delineante Proiektugilea	1	1	1
3255	Moldatzailea	1	1	1
3257	Lantoki-burua	3	2	3
3268	Eragiketa eta Monitorizazio teknikaria	6	4	6
3282	Irudi Analogiko/Digitaleko teknikaria	1	1	1
3299	Elektrikaria	2	0	2
3300	Iturgina	2	0	2
3308	Ibilgailuen mekanikaria	24	0	23
3317	Ibilgailuen Mekanika-lantegiko arduraduna	1	1	1
3402	Segurtasun Bulego Teknikoko teknikaria	1	1	1
3505	Mantentze-teknikaria	1	0	1
3506	Arduradun nagusia	1	0	1
3507	Elektrizitatearen arduraduna	1	0	1

2024ko martxoaren 18a, astelehena

Kodea	Lanpostua	Plazak, guztira	Guztira, hizkuntza- eskakizunarekin	Sarbide orokorraren modalitatea guztira
3569	Elektrizitateko Mantentze Lanen Taldeko burua	1	0	1
3154	Harrerari telefonaria	2	2	2
3164	Sukaldaria	2	0	2
3172	Inprimategiko ofiziala	1	1	1
3248	Administrari Laguntzailea A	69	56	66
3290	Igeltsaria	1	0	1
3291	Biltegizaina	1	0	1
3294	Galdaragilea	1	0	1
3295	Arotza	3	0	3
3298	Ibilgailuen txapa-konpontzailea	2	0	2
3313	Mantenuko ofizial mekanikaria	1	0	1
3161	Ostalaritza laguntzailea	7	2	6
3165	Atezaina	1	0	1
3314	Langilea A	1	0	1
3315	Langilea B	18	0	18
3539	Mendeko gidaria	1	0	1
3217	Ekinbideko burua-Ertzaintzaren zerbitzua hobetzeko bulegoa	1	0	1

2024ko martxoaren 18a, astelehena

## II. ERANSKINA

Kodea	Lanpostua	Plazak, guztira	Taldea	Eranskina
3112	Euskara Ataleko burua	1	I	I
3136	Ebaluazio Arloko burua	1	I	IX
3180	Prestakuntza eta Hizkuntza Normalkuntza teknikaria	1	I	XIV
3222	Eraikuntzak Mantentzeko Ataleko burua	1	I	XVII
3226	Eraikuntza Ataleko burua	1	I	XIX
3230	Mantenurako Teknika-bulegoaren Ataleko burua	1	I	XX
3234	Lege-araubidearen Ataleko burua	1	I	XXII
3246	Analisigilea	8	I	XXIV
3247	Analisigile-programatzailea	2	I	XXV
3275	Analisien teknikaria	1	I	XXVII
3380	Estatistika teknikaria	2	I	XXIX
3524	Sistema Zentralen teknikaria	1	I	XXXVII
3556	Larrialdi eta Babes Zibilerako teknikaria	1	I	XLIII
3575	Prebentzio, Prestakuntza, Ergonomia eta Psikosoziologia Aplikatuko goi-mailako teknikaria	1	I	XLIV
3586	Ertzaintzaren Egitura eta Antolaketako teknikaria	3	I	XLVII
3588	Lanbide-garapenerako Ataleko burua	1	I	XLIX
3704	E-learning Edukien Kudeaketako teknikaria	1	I	L
3734	Langileak Kudeatzeko Arlo Juridikoko burua	1	I	LIII
3519	Administrazio-ataleko burua	1	I	LVII
3231	Lantegien Atal Teknikoko burua	1	II	LX
3273	Segurtasun Instalazioen ikuskatzailea	1	II	LXII
3401	Antolaketa Proiektuetako burua	2	II	LXIV
3509	Ikuskatzaile nagusia	1	II	LXVI
3512	Bulego Teknikoko teknikaria	1	II	LXVII
3518	Materialen Kalitate-ataleko burua	1	II	LXVIII
3548	Lantegien Ataleko burua	1	II	LXIX
3269	Programatzailea	3	III	LXXI
3244	Administraria B	16	III	LXXIII
3255	Moldatzailea	1	III	LXXV
3257	Lantoki-burua	3	III	LXXVI
3317	Ibilgailuen Mekanika-lantegiko arduraduna	1	III	LXXXIII
3505	Mantentze-teknikaria	1	III	LXXXV
3506	Arduradun nagusia	1	III	LXXXVI
3507	Elektrizitatearen arduraduna	1	III	LXXXVII
3569	Elektrizitateko Mantentze Lanen Taldeko burua	1	III	LXXXVIII
3164	Sukaldaria	2	IV	XC
3172	Inprimategiko ofiziala	1	IV	XCI
3291	Biltegizaina	1	IV	XCV
3294	Galdaragilea	1	IV	XCVI
3313	Mantenuko ofizial mekanikaria	1	IV	XCIX
3165	Atezaina	1	V	CI
3217	Ekinbideko burua-Ertzaintzaren zerbitzua hobetzeko bulegoa	1	I	CV *Fitxa III. Eranskinean

## III. ERANSKINA

## CV. ERANSKINA. 3217 LANPOSTURAKO ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

## 1.– Deialdiko plazak.

3217 lanpostuko plaza baterako deialdia egiten da, txanda irekian, eta ez du nahitaezko hizkuntza-eskakizunik.

Eta banaketa honen arabera izango da:

Sarbide orokorreko modalitatea: 1.

## 2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatik ordaindu beharreko tasaren zenba tekoa 19,78 eurokoa da.

2.3.– Oinarri orokorretako 2.3.e) apartatuan xedatutakoari dagokionez, honako hauek dira deialdiko lanpostua lortzeko eskatzen diren titulazioak eta esperientzia:

Soziologia eta Politika-zientzietako lizentzia edo baliokidea eta 3 urteko esperientzia antzeko eginkizunetan.

Eskainitako lanpostuen zerrendan –oinarri orokorretako 13.2 apartatuan egiten zaio erreferentzia– honako hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo erakundea, zentro organikoa, destinoko udalerrria, ordainsari-maila, hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data eta lanposturako behar diren betekizun espezifikoak.

## 3.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta prozesuaren kalifikazioa ondoren adierazten den baremoaren arabera emandako puntuen baturak zehaztuko du. Prozesuan jarraitzeko, gutxienez 20 puntu lortu beharko dira.

## a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira I. titulazio-taldeko lanpostuetan jarduteagatik –doktorea, lizentzia, gradua, ingeniartza, arkitektura edo baliokidea– emandako zerbitzuak, edozein administrazio publikotan emandakoak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren erakunde autonomoak barne– eta erakunde autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, alde batera utzita funtzionario harremana edo lan-kontratuko harremana den.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,0625 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 15 puntu lortu ahal izango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, behin hori amaituta, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira. Horretarako, hilabetetzat 30 eguneko multzoa hartuko da.

## b) Esperientzia espezifikoa.

Zehazki, esperientzia orokorraren baloraziotik aparte eta haren osagarri, Segurtasun Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako langile lan-kontratudunen hitzarmen kolektiboko lan-postuetan egindako zerbitzu hauek baloratuko dira –gehienez ere 45 puntu lortu ahal izango dira–:

– 3217 kodea duen Ekinbideko burua-Ertzainaren zerbitzua hobetzeko lanpostuan: 0,1875 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko.

– Deialdikoa ez den I. titulazio-taldeko lanpostuetan: 0,12 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 20 puntu lortu ahal izango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, behin hori amaituta, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira. Horretarako, hilabetetzat 30 eguneko multzoa hartuko da.

## c) Tituluak.

Gehienez ere 12 puntu emango zaizkie sartzeko alegatutakoaz bestelako titulu akademiko edo unibertsitate-titulu ofizialei, ondorengo baremoaren arabera:

– Lizentzia, gradu, ingeniari-titulu, arkitekturako titulua edo baliokidea egiaztatzeagatik: 8 puntu titulu bakoitzeko.

– Doktoregoa, ingeniari-titulu tekniko, unibertsitateko diploma, arkitektura teknikoko titulua edo baliokidea egiaztatzeagatik: 6 puntu titulu bakoitzeko.

– Unibertsitate-masterreko titulu bat egiaztatzeagatik: 4 puntu titulu bakoitzeko.

– Lanpostura sartzeko titulazio betekizuna lizentzia, ingeniari-titulu edo arkitekturaren (GHKEE 3) bidez egiaztatzeagatik: 4 puntu titulu bakoitzeko.

– Bigarren mailako lanbide-heziketako titulua edo baliokidea egiaztatzeagatik: 2 puntu titulu bakoitzeko.

d) Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, lanpostura sartzeko aukera ematen duen Segurtasun Sailaren lehentasun goreneko lan-poltssetako batean egoteagatik, Giza Baliabideen zuzendariaren 2022ko urriaren 3ko Ebazpenaren bidez eguneratuta (2022ko urriaren 17ko EHAA).

Apartatu hau baloratzeko, kontuan hartuko da soilik pertsona benetan sartuta dagoela baloratu beharreko lan-poltsan, etenik gabe 2022. urtetik atzerantz, baremo honen arabera:

– 15 puntu, 2008. urteko eguneratzeaz geroztik lan-poltsan etenik gabe egoteagatik.

– 13 puntu, 2010. urteko eguneratzeaz geroztik lan-poltsan etenik gabe egoteagatik.

– 11 puntu, 2012. urteko eguneratzeaz geroztik lan-poltsan etenik gabe egoteagatik.

– 9 puntu, 2014. urteko eguneratzeaz geroztik lan-poltsan etenik gabe egoteagatik.

– 7 puntu, 2016. urteko eguneratzeaz geroztik lan-poltsan etenik gabe egoteagatik.

– 5 puntu, 2018. urteko eguneratzeaz geroztik lan-poltsan etenik gabe egoteagatik.

– 3 puntu, 2020. urteko eguneratzeaz geroztik lan-poltsan etenik gabe egoteagatik.

– Puntu 1, 2022. urteko eguneratzeaz geroztik lan-poltsan etenik gabe egoteagatik.

e) Informatikari buruzko ezagutza.

Informatika-ezagutza baloratuko da –gehienez ere 8 puntu lortu ahal izango dira–. Puntu 2 emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.
- Oinarrizko Internet.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft PowerPoint 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.
- Internet aurreratua.

IT txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatuko da moduluak gainditu diren, 9.2.5 oinarri orokorrean adierazitakoaren arabera. Modulu beraren hainbat bertsio egiaztatzen badira, bakar bat baloratuko da.

f) Hizkuntzen ezagutza.

Hizkuntza hauen ezagutza baloratuko da: ingelesa, alemana eta frantsesa –gehienez ere 5 puntu lortu ahal izango dira–. Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailen arabera, hurrengo hau izango da baremoa, eta hizkuntza bereko mailarik altuena bakarrik baloratuko da:

- C1 maila edo goragokoa: 3 puntu, hizkuntza bakoitzeko.
- B2 maila: 2 puntu, hizkuntza bakoitzeko.
- B1 maila: puntu 1, hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien baliokidetasuna ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuen hautatze- eta hornitze-prozesuetarako.

g) Euskararen ezagutza.

- 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 5 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 10 puntu.
- 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 15 puntu.
- 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 20 puntu.

### 3.– Lehentasun-klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatuz, ez da artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula aplikatuko, lanpostu honetan ez baitago emakumeen azpiordezkaritzarik.